



BIDEGI

GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA
AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS

DONOSTIAKO 2. INGURABIDEA EGITEKO LANAK

**DONOSTIAKO 2. INGURABIDEKO LANETAN
ZAILTASUNIK HANDIENA GAINDITU DA, URUMEAKO
IBARRA GAINETIK ZEHARKATZEN DUEN KILOMETRO
BATEKO EGITURA EGINDA**

Urumeako bidezubia (1.010 m) Gipuzkoako bide sareko luzeena izango da. Urumeako autobia, GI-131 eta GI-2134 errepideak eta Abiadura Handiko Trenaren trazatua izango dena gurutzatzen ditu gainetik. Gaur, apirilaren 24an, burutu ahal izan da bidezubiaren eskuin galtzada, azken euskarriak kendu zaizkionean. Bidezubia, 2. ingurabide guztiarekin batera, 2010ean jarriko da zerbitzuan.

DONOSTIAKO 2. INGURABIDEA

TARTEA: ERRENTERIA – URUMEAKO LOTUNEA

*Luzera: Autobidearen enborra **8,5 km**

*Obra zibilaren aurrekontua: **170 milioi euro**

*Udalerriak:
-Errenteria
-Oiartzun
-Donostia
-Astigarraga

*Eraikuntza: **UTE Bigarrena (Altuna y Uria, Amenabar, Galdiano, Moyua)**

*Obra zuzendaritzako laguntza: **Prointec**

*Egitura nagusiak: **-Errenteriako lotunea** (A-8 autobidearekin) *3 bidezubi-pergola-azpiko pasabidea*
-**Urumeako lotunea** (Urumeako autobiarekin) *4 bidezubi*
-**Menditxoko tunela** (382 m)
-**Perurenako tunela** (421 m)
-**Mintegietako tunel artifiziala** (194 m)
-**Urumeako bidezubia** (1 km)

*Lerroak: 6 lerro (3na bi galtzadetan)

Donostiako 2. ingurabideko lanetan zailtasun fisikorik handiena gainditu da, Urumeako ibarra gainetik zeharkatzen duen kilometro bateko egitura Astigarragan eginda. Egiturari Urumeako bidezubia deitu zaio; 1.010 metro luzea da, Gipuzkoako bide sareko luzeena eta Donostiako 2. ingurabideko Errenteriatik Urumeako lotunera bitarteko egiturarik aipagarriena.

Bide zati honen eraikuntza 2006ko bukaeran hasi zen eta korridorearen gainerako zati osoarekin batera 2010ean irekiko da trafikorako. Enborrak dituen 8,5 kilometroetan daude A-8 autobidearekiko lotunea Errenterian –pergola bat, hiru bidezubi eta azpiko pasabide bat dituen- eta Urumeako lotunea, Urumeako autobiarekin lotuko duena. Lan horietan, lau bidezubiz gainera, Menditxoko tunela (382 metro), Perurenakoa (421 metro) eta Mintegietako tunel artifiziala (194 metro) egin beharko dira.

URUMEAKO BIDEZUBIA



- 1.000 metroko bi zubiz osatua dago.
 - ❖ Ezker galtzada: 21 begiko bidezubi bat da; begi bakoitzak 55 metroko argia du.
 - ❖ Eskuin galtzada: 20 begiko bidezubi bat da; begi bakoitzak 55 metroko argia du.
- Bidezubi bakoitzaren zabalera 14 metro da.
- 37 pilare daude, batez beste 22 metroko altuerakoak.
- Piloteen diametroa: 1,5 m 5.500,00 m
- Hormigoi armatua: 56.800,00 m³
- Altzairu pasiboa: 6.850.000,00 kg
- Altzairu aktiboa: 980.000,00 kg

Aurrekontua: 32 milioi euro.